

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEZAKO UDALA

#### **Lurzatiak lagatzea Lezako VI 10097 ehiza esparrua, Artesilla izenekoa, berritzeko**

Lezako udalbatzak, 2019ko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran, erabaki zuen VI-10097 ehiza esparrua berritzea. Ehiza esparru horrek Lezako udalerriko 892 hektarea hartzen ditu.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzkoak, 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun baliaduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da udal honek baimena daukala ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Leza, 2019ko urtarrilaren 28a

*Alkatea*

*INMACULADA LAREDO FUERTES*